

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Gasteizen eta Araban Lanbide Heziketa Bultzatu eta Garatzeko Partzuergoko lehendakariordetza eskuordetzeari buruzkoa

Gasteizen eta Araban Lanbide Heziketa Bultzatu eta Garatzeko Partzuergoaren Estatutueta 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gasteizko alkatea izango da partzuergoaren lehendakariordea, eta hark izendatzen duenak ordezkatu ahalko du zuzendaritza batzordean eta dagozkion eskumenak betetzeko orduan.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk zinegotzien esku utz ditzake, dekretu bidez. Beraz, hau

Xedatu dut

Estibaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzea Gasteizen eta Araban Lanbide Heziketa Bultzatu eta Garatzeko Partzuergoaren lehendakariordetza.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE